

# Kontratazio elektronikorako behin-behineko gaikuntza



Kontratazio  
publiko elektronikoa  
Contratación  
pública electrónica



Good Practice Label 2007  
epractice.eu



Eredu erraz, erabilgarri eta segurua

[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)  
[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

# Kontratazio elektronikorako behin-behineko gaikuntza

Gaikuntza honi ezker, lizitazio elektronikoa erabili ahal izango dute behin-behineko enpresa elkarteek, eskaintza elektronikoa bakarrez lehiatu nahi izango duten enpresek eta euskadiko kontratisten erregistroan izenik eman ez duten enpresek ere.

Behin-behineko Gaikuntza lizitazio elektronikoa espediente bakar eta zehatz bati lotuko zaio eta prozedura amaitzean indargabetuko da. Legeak agintzen duenez, kontratisten erregistro ofizialean izena emana duten enpresek daukate kontratazio elektronikoko guztietan, besterik gabe, parte hartzeko eskubidea.

## Kontratazio elektronikorako Behin-behineko Gaikuntzan sartzea

Ikusita Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak eta herritarrek Zerbitzu Publikoetara baliabide elektronikoa bidez sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak xedatutakoa, Eusko Jaurlaritzak kontratazio elektronikoa interes dutenen unibertsoa zabaltzea erabaki du. Horretarako, Behin-behineko Gaikuntza modulua sortu du kontratazio elektronikoa ahalbidetzeko.

Behin-behineko Gaikuntza modulua Kontratisten Erregistro Ofizialaren lagungarria izango da eta bere helburua da kontratazio elektronikoa interesatuta daudenen unibertsoa zabaltzea.

Zehazki, kontratazio elektronikorako Behin-behineko Gaikuntzaren bidez lizitazio elektronikoa erabili dezakete:


- **Behin-behineko Enpresa Elkarteak.**
- **Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana ez duten enpresak.**
- **Eskaintza elektronikoa batekin elkarrekin lizitatu nahi duten enpresak.**

Adierazi bezala, behin-behineko gaikuntza lizitazio elektronikoa espediente bakar eta zehatz bati lotuko zaio eta prozedura amaitzean indargabetuko da.

Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatu gabeko enpresen kasuan, kontratazio elektronikorako Behin-behineko Gaikuntza egin deneko espedientearen plegu administratiboetan ezarritako dokumentuak eman behar dira. Gaikuntza egiteko aurkeztu beharreko dokumentuen bolumena eta izaera kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak aukera ematen du, enpresa lizitatzailerak hala nahi izanez gero, Behin-behineko Gaikuntzarako eskaera Kontratisten erregistro Ofizialean inskribatzeko eskaera telematikoa bihurtzeko.

Gogoratu, Sektore Publikoko Kontratuetako Legearen arabera, kontratisten erregistro ofizialean izena emana duten enpresek daukate kontratazio elektronikoko guztietan, besterik gabe, parte hartzeko eskubidea.





## Kontratazio elektronikorako Behin-behineko Gaikuntzaren ezaugarriak

Kontratazio elektronikorako Behin-behineko Gaikuntzaren bidez, enpresek aldi batez lizitazio elektronikoa erabili dezakete espediente baten testuinguruan, hauetako baten kasuan: Behin-behineko enpresa elkarreak, Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatu gabekoak eta eskaintza elektronikoa batekin elkarrekin lizitatu nahi duten enpresak.

Behin-behineko Gaikuntza espediente bakar eta zehatz baten lizitazioari lotuko zaio eta prozedura amaitzean indargabetuko da.


Behin-behineko Gaikuntza internet bidez eska daiteke soilik. Kontratazio Publiko Elektronikoa Ereduari buruzko informazioa eta Behin-behineko Gaikuntza internet helbide hauetan eskuragarri daude:

[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)  
[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)

Behin-behineko Gaikuntza modulu sistema bat da, eta elementu hauetara sartzea ahalbidetzen du:


- **Behin-behineko Enpresa Elkarreen intentzio modulu.**
- **Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatu gabeko enpresen modulu.**
- **Hainbat enpresak elkarrekin eskaintza egiteko intentzio modulu.**

Behin-behineko Gaikuntzaren funtzionamendua lizitazio elektronikoa aplikatzeari dagokionez



**Behin-behineko Gaikuntza internet bidez eska daiteke soilik**

**eta espediente bakar eta zehatz bati lotzen zaio soilik**



**Enpresa interesatuak  
hala nahi badu, Behin-  
behineko Gaikuntza  
eskaera Kontratisten  
Erregistro Ofizialean  
inskribatzeko eskaera  
telematiko bihur  
daiteke**

## **Behin-behineko Enpresa Elkarteen Behin-behineko Gaikuntza kontratazio elektronikorako**

Behin-behineko enpresa elkarteek kontratazio elektronikorako Behin-behineko Gaikuntza erabili ahal izateko Enpresen Behin-behineko Elkartearen intentzio modulua bidez egiten da.

Aplikazioak prozedura hau jarraitzen du:

- Lehenbizi, enpresa lider batek intentzio moduluan sartzeko prozesua hasten du. Prozesu horrek elementu hauek ditu:
    - Enpresaren ordezkaria egiaztatzea (ahalduna, solidarioa edo mankomunatua), aitortutako sinadura elektronikoa ziurtagiriaren bidez.
  - Jarraian, intentzio bat sortzeko prozesua hasten da.
  - Enpresa liderrak gainerako enpresak gaitzen ditu, intentzioan parte hartzeko.
  - Ondoren, enpresen ahaldunaren intentzio txostenera sartzeko baimenen bidez, enpresa bakoitzak osaera baliozkotu behar dute.
- Intentzio bat osatzen denean, honako hauek edukiko dira:
    - Intentzio zenbakia, elektronikoki lizitatu ahal izateko.
    - Enpresa bakoitza ordezkatzeko duen ahaldunen (solidarioa edo mankomunatua) NANA.
    - Enpresa bakoitzaren izendapena, espedientea eta partaidetza.
    - Intentzioa literalki izendatzea, intentzio zenbakiak emandako identifikazioa osatzeko.
    - Enpresaren barneko enpresek eta pertsonak kontratazio elektronikoko sisteman alta eman eta eskaintza kargatu eta sinatu behar dute, intentzioaren izenean (ahaldunek, solidarioak nahiz mankomunatuak).
    - Intentzio dokumentua (espedientea, parte hartzen duten enpresak, ahaldunen partaidetza %), ahaldunek elektronikoki sinatuta.
  - Inskripzio zenbakiarekin, Behin-behineko Enpresa Elkarteak elektronikoki lizitatu ahal izango du.






## Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatu gabeko enpresen modulua

Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatu gabeko enpresen kasuan, kontratazio elektronikorako Behin-behineko Gaikuntza egin deneko espedientearen plegu administratiboetan ezarritako dokumentuak aurkeztu behar dira.

Gogoratu, legeak agintzen duenez, kontratisten erregistro ofizialean izena emana duten enpresek daukate kontratazio elektronikorako guztietan, besterik gabe, parte hartzeko eskubidea.

Gaikuntza egiteko aurkeztu beharreko dokumentuen bolumena handia denez eta dokumentuak garrantzitsuak direnez, Eusko Jaurlaritzak aukera ematen du, enpresa lizitatuak hala nahi izanez gero, Behin-behineko Gaikuntzarako eskaera Kontratisten erregistro Ofizialean inskribatzeko eskaera telematikoki bihurtzeko.

Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatu ez diren enpresek erregistroan inskribatzeko eskaera bihurtzeko Behin-behineko Gaikuntza



Behin-behineko Gaikuntzarekin espediente bakar eta zehatza lizitatu daiteke elektronikoki. Kontratazio espediente batean estualditik ateratzeko balio du

## Behin-behineko Gaikuntza erabiltzea hainbat enpresek elkarrekin eskaintzak aurkezteko

Zenbait enpresek Behin-behineko Enpresa Elkartearen osatu gabe, kontratazio espediente baterako eskaintza elkarrekin aurkezteko da. Enpresek espedientea sinatu beharko dute, enpresa bereko ahaladun mankomunatuak ordezkatzeko balituzte bezala.

Aplikazioak prozedura hau jarraitzen du:

- Lehenbizi, enpresa batek (era mankomunatuaren aurkeztuko duten enpresetako bat) prozesua hasten du, enpresek elkarrekin eskaintzak egiteko moduluan sartzeko.
- Jarraian, eskaintza bateratu bat sortzeko prozesua hasten da.
- Gero, espedientera sartzeko ahaladunak duten baimenaren bidez, eskaintza bateratua egin duten enpresetako bakoitzak bere osara egiaztatzea behar du.

- Eskaintza bateratu bat sortzeko prozesuaren ostean, honako hauek edukiko dira:
  - Eskaintza bateratuaren intentzio zenbakia.
  - Elkarrekin eskaintza aurkeztu duten enpresetako ahaladunen (solidarioa edo mankomunatu) NANA.
  - Eskaintza bateratuaren intentzioa literalki izendatzea, eskaintza bateratuaren intentzio zenbakiak emandako identifikazioa osatzeko.
  - Enpresaren barneko enpresa eta pertsonen kontratazio elektronikoko sistemari alta eman eta eskaintza kargatu eta sinatu behar dute, eskaintza bateratuaren izenean (ahaladunak, solidarioak nahiz mankomunatuak).
  - Eskaintza bateratuaren intentzio dokumentua (espedientea, parte hartzen duten enpresak, ahaladunak), eskaintza bateratuko ahaladunak elektronikoki sinatuta.
- Eskaintza bateratuaren inskripzio zenbakiarekin, enpresek elektronikoki lizitatu ahal izango dute.

## Behin-behineko Gaikuntza kontratazio elektronikorako erabiltzeko eskuliburua

Kontratazio Publiko Elektronikoen Ereduari buruzko informazioa eta Behin-behineko Gaikuntza erabiltzeko eskuliburua "Documentazioa Deskargatzea" atalean eskuragarri daude, internet helbide hauetan:

[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)  
[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)

